

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### AÑANAKO KUADRILLA

**Jendaurrean jartzea hondakin solidoak biltzeko zerbitzuaren tasaren kontribuzio erroldak, Añana, Armiñon, Berantevilla, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Gaubea eta Zambranako udalerrietakoak, eta borondatezko epean ordaintzeko moduan jartzea 2019ko bigarren seiheleko ordainagiriak**

Añana, Armiñon, Berantevilla, Iruña Oka, Kuartango, Lantaron, Erriberagoitia, Erriberabeitia, Gaubea eta Zambranako udalerrietan hiri hondakinak biltzeko zerbitzuaren 2019ko bigarren seiheleko tasa ordaindu behar dutenen errolda osatu da, eta 2019ko irailaren 27ko ebazpen baten bidez onartu. Iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera hamabost egun baliodun jarriko da jendaurrean errolda, interesdunek aztertu eta egokiak iruditutako erreklamazioak aurkeztu ahal izan ditzaten.

Interesdunek Añanako Kuadrillaren egoitzan (Foruen plaza, 11 – 01213 Ribabellosa - Araba) aztertu ahal izango dute espedientea, 10:00etatik 13:00etara.

Kontribuzio errolda jendaurrean jartzean, hura osatzen duten likidazioen jakinarazpen kolektiboa egiten da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 98. artikularen 3. apartatuan xedatutakoaren arabera; dena dela, interesdunek esleitu zaizkien kuoten aurkako berraztertze errekurtsoa aurkez dezakete, hilabeteko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtsoak eta erreklamazioak kuadrillaren lehendakariari aurkeztuko zaizkio, aurretik zehaztutako epeetan.

Ordaintzeko borondatezko epea 2019ko urriaren 31n hasi eta abenduaren 31n bukatuko da, bi egun horiek barne direla.

Zergaren ordainketa helbideratuta dutenei 2019ko azaroaren 4an kobratuko zaie.

Banketxeetan helbideratu gabeko ordainketak:

Tasaren ordainketa helbideratuta ez daukaten zergadunek Kutxabanken bulegoetan ordainduko dute, 08:30etik 10:30era, etxean jasoko duten kobratze jakinarazpena aurkeztuta, edo, bestela, interneten bidez. Ordainagiria galtzen bada edo jasotzen ez bada, kopia bat egingo dute udal bulegoek.

Banketxeetan helbideratutako ordainketak:

Añanako Kuadrillak zordunketa zuzenean kudeatuko du ordainketa helbideratu den banketxeetako kontuetan.

Borondatezko epean ordainketarik egin ez bada, premiamendu bideari emango zaio hasiera, eta dagokion errekargua aplikatuko da, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorrak 28. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Ribabellosa, 2019ko irailaren 27a

*Lehendakaria*  
**JAVIER URIARTE JAIRO**